

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Portugaleteko Udala****Gazte elkarteetarako urteko diru-laguntzen 2018ko deialdia onetsi**

Portugaleteko Udalaren Gobernu Batzordeak 2018ko martxoaren 9an egindako bilkuran onetsi egin du gazte elkarteetarako urteko diru-laguntzen deialdi hau:

1. artikulua. — Xedea

Araudi honen xedea da gazte-elkarteei urteko programaren garapenerako laguntza ekonomikoak ematea eta sarbidea arautzea. Izan ere, gazte-elkarte horiek euren estatutuetan aisialdia sustatzea eta haurren nahiz nerabeen izpiritu kritikoa, sortzailea eta gizarte-eraldatzailea, hain zuzen ere, besteak beste, bultzatu behar dituzte.

2. artikulua. — Entitate onuradunak

Araudi honek arautzen dituen diru-laguntzak eskuratu ahal izango dituzte urte osoan aisialdi eta astialdiaren esparruan lan egiten duten eta honako baldintzak betetzen dituzten elkarteek:

- Kokapena, jarduketa-eremua eta egoitza Portugaleten izatea.
- Legalki eratuta egotea edo baldintza hori betetzen duen entitate baten mende egotea, era berean entitate horrek dagokion IFK eduki beharko du.
- Urte osoan haur eta nerabeentzako jarduerak antolatzea.
- Estatutuek beren beregi jaso beharko dute haur eta gazteen alorrean garatzeko xedea dutela.
- Irabazi asmorik gabeko erakunde moduan eratuak izatea.
- Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistemaren Aldaketari buruzko 2015eko uztailaren 28ko 26/2015 Legearen 13. artikulua dakarrena betetzea.
- Administrazio, antolakuntza eta kontabilitate sistema erantzulea, gardena eta ezaguterra izatea.
- Betebehar fiskalak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea eta horiek beraiek idatziz egiaztatzea.

3. artikulua. — Deialdiaren arauak

Deialdi honen gaineko arauak Udaltzak onetsi zituen 2017ko martxoaren 30eko bilkuran eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zirenen 2017ko apirilaren 25ean.

4. artikulua. — Zenbatekoa

Aurrekontuko kreditu erabilgarria hamaika mila (11.000) eurokoa izango da, indarreko aurrekontuko 07 3342 48101 sailaren kargura.

5. artikulua. — Eskerak aurkezteko epeak eta tokiak

— Eskerak aurkezteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita zenbatu beharreko hilabetekoa izango da.

— Eskerak Portugaleteko udaletxeko Erregistro Orokorrean (Solar plaza, z/g), astelehenetik ostiralera 8:00etatik 14:00etara edo Herritarren Arretarako Informazio Bulegoan (San Roke plaza, z/g), astelehenetik ostiralera 14:30etik 20:15era eta larunbatetan 9:00etatik 13:45era.

Portugaleten, 2018ko martxoaren 21ean. — Alkatea, Mikel Torres Lorenzo